



EBBren Prentsa Bulegoa

EUZKADIko



## **Euzkadi Buru Batzarraren komunikatua Ardanza Lehendakariaren heriotzaren ondoren**

Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarreko presidentek irakurri du gaur Sabin Etxean Ardanza Lehendakariaren heriotzaren ostean atzo jeltzaleen Batzorde Exekutibo Nazionalak onartu zuen agiria.

*Dolumin handiz, guztiz atsekabetuta, hartu genuen atzo José Antonio Ardanza Garro, Ardanza Lehendakaria, zendu zelako albisteak. Euzko Alderdi Jeltzalearentzat, eta Euskadirentzat, galera handia.*

*Gure adeitasun- eta hurbiltasun-adierazpenik sentikorrena helarazten diogu familiari, eta bereziki Mari Glori Urtiaga emazteari, Nagore alabari eta Aitor semeari.*

*Ardanza Lehendakaria ezagutu ahal izan genuenok badakigu bere familia naturala eta familia politikoa bere bizitzaren oinarri izan direla, eta sustrai horien gainean eraiki duela bere bizi proiektua.*

*Gaur, familia biak bat gara doluminean eta gure Herrian zein kanpoan, XX. mendearen bigarren erdialdean euskal figura politikorik garrantzitsuenetako bat izan denari azken agurra ematen.*

*José Antonio Ardanza Garro, Lehendakari izan aurretik, Euzko Gaztediko militante izan zen klandestinitatean. Erbestea sufritu zuen. Diktadura amaitutakoan, lehen udal hauteskunde demokratikoetan Arrasateko Alkatetza bereganatu zuen. Handik Gipuzkoako Ahaldu Nagusi bihurtu zen. Eta ondoren Lehendakaritzara iritsi zen baldintzarik latzenetan, Alderdi barruan zatiketaren atarian. Ibilbide honek argi uzten du Ardanza Lehendakariak Herri honen zerbitzura jartzeko borondateari eutsi ziola, bai eta Euzko Alderdi Jeltzalearekin konpromiso irmo eta zintzoa izan duela beti, bereziki egoera politikorik konplexuenetan.*



*Ardanza Lehendakaria zenarekin erabat eskertuta dagoela adierazi nahi du gaur EAJ-PNVk, eta uzten digun legatu politiko aberatsa aitortzen dugu, bera gabe ez baikenuke erraz ulertuko gaur egun dugun Euskadi oparo eta baketsua.*

*Autogobernuaren eta indarkeriaren amaieraren alde egin zuen lanak garai bat markatu zuen. Zentzu horretan, esanguratsuak ere badira Lehendakaritzan eman zituen hamalau urteetan Gernikako Estatutuak ezagutu zuen garapen maila eta ETA gure bizitzatik desagertu zedin egin zituen ekimenak ere, hauen artean 'Ajuria Eneako Ituna' izenez ezagutu genuena, eta geroago 'Ardanza Plana' deitu zena.*

*Erakundeetan egindakoaz gain, Euzko Alderdi Jeltzaleak harro esan dezake José Antonio Ardanza alderdikide izan duela hirurogei urte luzetan, eta beti ideal abertzale eta demokratikoen zerbitzura aritu izan dela. Egiatzko Jeltzale jatorrari esaten diogu agur, baina gudan geratzen dira bere legatua eta bere eredia.*

*Agur eta ohore, Lehendakari!*



## Comunicado del Euzkadi Buru Batzar tras el fallecimiento del Lehendakari Ardanza

El presidente del Euzkadi Buru Batzar, Andoni Ortuzar, ha dado lectura hoy en Sabin Etxea a la declaración que ayer aprobó la Ejecutiva Nacional jeltzale tras el fallecimiento del Lehendakari Ardanza.

*Con gran pena, enorme dolor y el sentimiento de una notable pérdida para el Partido Nacionalista Vasco, y para Euskadi entera, acogimos ayer el fallecimiento de José Antonio Ardanza Garro, el Lehendakari Ardanza, en su casa de Kanala.*

*Hacemos llegar nuestra máxima muestra de cariño y cercanía a toda su familia, en especial a su esposa, Mari Glori Urtiaga, a su hija Nagore y a su hijo Aitor. Quienes hemos conocido en vida al Lehendakari Ardanza sabemos que su familia natural y su familia política han sido los dos basamentos principales sobre los que ha construido su fecundo proyecto de vida. Hoy ambas familias somos solo una en este momento tan trascendental, y juntas despediremos a quien ha sido una de las figuras políticas vascas más relevantes de la segunda mitad del siglo XX en nuestro País y fuera de él.*

*José Antonio Ardanza Garro, antes de ser Lehendakari, fue militante clandestino de Euzko Gastedi durante el franquismo. Sufrió exilio. Tras la dictadura, asumió la Alcaldía de Arrasate en las primeras elecciones municipales democráticas. De ahí pasó a ser Diputado General de Gipuzkoa, y después llegó a la Lehendakaritza en unas difíciles condiciones previas a la escisión en el seno del Partido. Esta trayectoria deja patente la vocación de servicio a su País que siempre ha mantenido el Lehendakari Ardanza, y también su férreo compromiso con el Partido Nacionalista Vasco, especialmente en las situaciones políticas más complejas.*

*EAJ-PNV se quiere mostrar hoy vivamente agradecido al Lehendakari Ardanza y reconocer su legado político, sin el que sería difícil entender la Euskadi próspera y en paz que hoy conocemos. Su denodada lucha en favor del autogobierno y del fin de la*



*violencia marcó una época. En este sentido, es remarcable el elevado desarrollo que conoció el Estatuto de Gernika durante sus catorce años en la Lehendakaritza, así como las múltiples iniciativas para que ETA desapareciera de nuestras vidas, entre las que destaca el llamado 'Pacto de Ajuria Enea' y, posteriormente, la iniciativa que llevó su nombre, el 'Plan Ardanza'.*

*Más allá de su trayectoria institucional, el Partido Nacionalista Vasco se enorgullece de haber contado con un militante como José Antonio Ardanza durante más de sesenta años en los que siempre ha estado al servicio de los ideales abertzales y democráticos. Despedimos a un jeltzale genuino, pero nos deja su legado y su ejemplo.*

*Agur eta ohore, Lehendakari!*